



**Izena :** Sistemas Judo, S.L.

**Helbidea :** Avda.Ramón y Cajal 39, 2ª planta.

**Herria:**  
48014 Deusto Bilbao

**Telefonoa:**  
(34) 944 760 727

**E-posta:**  
info@sistemasjudo.com

**Web orrialdea:**  
[www.sistemasjudo.com](http://www.sistemasjudo.com)

### **Produktuaren Deskripzioa. Zerbitzua.**

SISTEMAS JUDO enpresa, 2000. urtean sortu zen ikerketa talde baten eskutik. Talde hori balio transferentzien sistemen garapenean espezializatu zen IKT esparruan, Webmining erreminten garapena eta ustiaketa landuz: hau da, ezagutza atera eta aurkitu Internetik sortutako informazioa abiapuntu hartuta.

Lotura aztertzekeo softwarea kontzeptualizatzen eta garatzen dugu, erreminta horiei lotutako zerbitzuak sortuz. Gure erremintak Inteligentzia Konpetitiboaren merkatuari zuzentzen zaizkio, antolaketari buruzko erabakiak arintzeko beharrari aurre egiten diote, harremanak eta emariak aurkitzeko eta ikusteko erabileren bidez (gizarte sareak, zurrumurruen hedapena).

Bazkide sustatzaileek eta langileek osatutako taldeak, funtsean, ezagutzako bi diziplina nagusiak bat egiten dituen talde bakarra eratzen du: ingeniarietza informatikoa (informazioaren prozesatua) eta zientzia soziologikoak (metodoak eta teknikak).

### **Merkatuaren Deskripzioa.**

ASOMO® Interneteko gizarte giroa aztertzekeo erreminta da.

ASOMO Sistemas Judo enpresak garatutako software bat da Interneteko erakundeen Gizarte Giroa hartzeko eta irudikatzekeo. ASOMO erremintaren funtzioa honakoa da: erakundeei azterketa erreminta bat eman: zerekin erlazionatzen zaizkien detektatu eta Interneten existitzen den, euren markei, produktuei edo jardueri buruzko irudia monitorizatu, iritziak abiapuntu hartuta.

ASOMO erremintari esker, denbora errealean, alde batetik, aldaketak har daitezke hautematean edo balorazioan, eta bestetik, bilakaerak, iritzi korronteetan eta erakunde eta kontzeptuen arteko harremanetan.

Gure ASOMO produktuak honako eginbeharra dauka: erakunde desberdinetako merkatuko ikerketa kualitatiboaren arloei hainbat erreminta eman, erabakiak hartu ahal izatekeo, Interneten, bere antolaketari, irudiari eta euren produktuak hautemateari buruz, sortzen den informazio guztia abiapuntu hartuta. Egun, gure bezeroen artean, sektore desberdinetako marka nagusienetariko batzuk nabarmendu ditzakegu, besteak beste: INDITEX, TELEFONICA, COCA COLA IBERIAN DIVISION, GLOBALIA, NH HOTELES, ONCE, IBERDROLA,, DEUTSCHE BANK, NIKE ESPAÑA, EPSON, CAJA MADRID, EITB ....

**Sortzeko urtea.**  
2000.

**Oraingo langileria.**  
18.

**Fakturazioa.**  
400.000 euro.

